

Kalitate Politika

Kalitate-politikan **BATZ Automotive Systems**-ek bere jardueraren oinarri diren ildo nagusiak zehazturik dauzka (xedea, ikuspena eta baloreak). Horrez gain, politika beraren betetze zein aldizkako berrikusterako beharrezko baliabideak jartzeko ardura ere badauka, dagokionari horren ulermen eta zabalpena egitearekin batera.

XEDEA

BATZ Automotive Systems-en jarduera bezeroari eta **BATZ Group**-ri arrakasta lortzen laguntzea da. **Soluzio berritzaileen inplementazio** eta **garapenaren bidez** gauzatuko da hori. Alde batetik, **nagusiki automozio sektoreari** zuzendutakoa izango da gauzapena; eta bestetik, **bezeroaren balio erantsiaren pertzepzioa areagotzen duten arintze, eraginkortasun eta segurtasunean oinarriturikoa**. Hori guztia, **pertsonen garapena bultzatuz** eta **ingurumenarekin arduratuz bideratuko da, modu errentagarri, iraunkor eta errespetutsu batean**.

IKUSPENA

BATZ Automotive Systems-en ikuspena **etorkizuneko ibilgailuen beharritan erantzuten dakien erreferentzia** izatea da, **BATZeko partaide izateaz harro dagoen talde batekin**.

BALOREAK

BATZ Automotive Systems-en jarduera guztia balore hauetan oinarrituta dago: **Konpromisoan eta Koherentzian, Positibotasunean, Mundu Mailako Pentsamoldean, Arrakastari Bideraturiko Jardueran, Talde Lanean, Bezeroari Bideraturiko Jardueran, Pertsonen Garapenean eta Berrikuntzan**.

Horretarako, honako **helburu nagusiak** ezarri dira:

- GURE BEZEROEN ETA ALDERDI INTERESDUNEN ASEBETETZE MAILA.
- BEZEROEN BALDINTZAK ETA APLIKATU BEHARREKO LEGEDI ZEIN ARAUDIA BETETZEA.
- PERTSONEN ASEBETETZE ETA PARTE HARTZEAREN SUSTATZEA.
- KALITATEAREN KUDEAKETA-SISTEMAREN ERAGINKORTASUNAREN ETENGABEKO HOBETUNTZAN LAN EGITEA.
- BEZEROAREN ESKUTIK BERRITZEA.
- ERAGINKORTASUNA.